



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAILA  
Ingurumen Sailburuordetza  
Inourumen Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACION TERRITORIAL Y VIVIENDA  
Viceconsejería de Medio Ambiente  
Dirección de Administración Ambiental

## ETXEKO HONDAKINEN BALORIZAZIO ENERGETIKOAREN ONDORIOZKO ZEPAK BALORIZATZEKO JARDUEREI APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDE JURIDIKOA EZARTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA EGIN AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak etxeko hondakinen balorizazio energetikoaren ondoriozko zepak balorizatzeko jardueri aplikatu beharreko araubide juridikoa ezartzen duen dekretu proiektua landu nahi du.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 133. artikulua 1. apartatuaren arabera (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa), lege- edo erregelamendu-proiektua edo -aurreproiektua egin baino lehen, kontsulta publiko bat egin behar da administrazio eskudunaren web atariaren bidez, bihar-etziko arauaren eragina gehien sumatuko duten norbanako eta antolakunde esanguratsuenen iritzia biltzeko gai hauen gainean:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Xedapena onartzeko premia eta egokiera.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

2017ko abenduaren 12ko Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez onartu ziren arau mailako xedapen orokorrak aplikatzeko jarraibideak, zeinen bidez ezarri baitzen aipatutako aurretiko kontsultaren izapidea xedapen orokorra izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak egin ahalko duela, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan iragarki bat jarritz.

Aurrekoa betetze aldera, eta hura egin aurretik, honen bidez gonbidatzen ditugu herritarrak beren iritzia eman dezaten Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko den eranskinean jasotako informazioari buruz

Vitoria-Gasteiz, sinaduran ageri den egunean.

**Ingurumen Administrazioaren zuzendaria**

(Sinadura elektronikoa)

**Sin: IVAN PEDREIRA LANCHAS**



Nahi izanez gero, J0D0Z-T1QXQ-445K bilagailua erabili, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador  
Donostia 1 - Tel: 945 01 98 06 - Fax: 945 01 99.11 - 01010 Vitoria-Gasteiz  
J0D0Z-T1QXQ-445K en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>

**ETXEKO HONDAKINEN BALORIZAZIO ENERGETIKOAREN ONDORIOZKO ZEPAK BALORIZATZEKO JARDUEREI APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDE JURIDIKOA EZARTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA EGIN AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA**

<p><b>EKIMENAREN BIDEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK.</b></p>	<p>Etxeko hondakinen balorizazio energetikoaren ondoriozko zepen hondakinak daude Euskal Autonomia Erkidegoko zabortegetan hondakin gehien sortzen duten hamar hondakin ez-arriskutsuen artean.</p> <p>Gaur egun, mota honetako hondakinen balorizazio energetikoa egiteko instalazio operatibo bakarra Zabalgarbi (Bizkaia) da, eta 43.000 tona zepa ekoizten ditu urtean. Laster, Zubietako ingurumen-gunea (Gipuzkoa) martxan jartzean, zepa horien produkzioa urtean 95.000 tona izatera irits daiteke Euskadin.</p>
<p><b>ZEIN BEHARREZKOA ETA EGOKIA DEN ARAUA ONARTZEA.</b></p>	<p>Europa 2020 Estrategiaren esparruaren barnean, helburu nagusietako bat da «Baliabideak era efikazean erabiltzen dituen Europa» lortzeko bidea hastea. Bertan kokatzen da «ekonomia zirkularra» eta bere helburua da sustatzea gaur egun ustiatu, fabrikatu, erabili eta deuseztatzen duen ekonomia lineala alda dadila gizarte-eredu zirkular baterantz, hau da, stockak eta material, energia eta hondakinen fluxuak erabili eta optimizatzen dituen eredu baterantz, eta amaierako helburua da baliabideak era efikazean erabiltzea.</p> <p>Europar Batasunaren helburu estrategikoekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2020ko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko Planarekin bat, zepa horiek, kasu batzuetan zenbait lehengaien oso antzeko ezaugarriak dituztenak, balorizatzea sustatu egin behar den praktika bat da; horrela, EAeko hondakinen kudeaketako problematika garrantzitsu bati irtenbidea emateko.</p>
<p><b>ARAUAREN HELBURUAK.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Balorizatutako zepak eraikuntzan segurtasunez erabiltzeko ingurumen-baldintzak ezartzea.</li> <li>• Hondakinetatik eratorritako bigarren mailako materialak ekoizpen-zikloetan sartzea sustatzea.</li> <li>• Balorizazio-prozesuaren gutxieneko eragiketak zehaztea, kalitatezko materiala lortzeko.</li> </ul>
<p><b>EA KONPONBIDERIK BADAGOEN ARAUKETA ERABILIZ EDO BESTE NOLABAIT.</b></p>	<p>Dekretu-proiektuaren xedea zepa-mota hori balorizatzeke jarduerak eta ondorengo erabilera arautzea da, giza osasuna eta ekosistemak babesteko.</p> <p>Dekretuaz gain, gida teknikoa landuko da dekretuaren ingurumen-interpretazio teknikoa errazteko, aplikazio</p>

	<p>egokia ziurtatze aldera.</p> <p>Ezinbestekoa da arau espezifiko bat egitea, ez baitago irtenbide alternatiborik, lege-testu bat beharrezkoa delako, etxeko hiri-hondakinen balorizazio energetikoaren ondoriozko zepa balorizatuak erabili ahal izateko.</p> <p>Egoera horiek operadoreei argitasuna eta segurtasun juridikoa ematen dien dekretu-mailako erregelamendu-arau bat egitera behartzeko dute, beraz, ez dira egokitzat jotzen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.</p>
--	---